

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zuzendaritza

D. Jon Redondo Lertxundi

2021eko urtarrilaren 4a

Redondo jaun agurgarria:

Pandemia dramatiko honetan zehar, futbol afizionatuak, kirol afizionatu guztiak bezala, gizarteak berarengandik espero duenaren mailan egoten jakindu, atsedenik gabe lan eginez osasun-agintarien gomendioak betetzeko orduan, erakundeek oraindik argitaratu ez dituztenean protokoloak aktibatuz, beren jabetzakoak ere ez diren instalazioen segurtasunean inbertituz eta indarrean dauden arauak eta prebentzio neurriak xehetasunez betetzeko beharraz gazteak kontzientziatuz.

Bederatzi hilabete dira gazteek eta hurrek talde-kirolik egin ezin dutela. Jarduera faltan eta sedentarismoaren egoeran daude eta horrez gain, inolako sozializazio osasungarririk gabe. Kirola egiteak osasunerako dituen onurez ez ezik, gure gazteen ongizate emozionalaz ere ari gara. Kontuan izan behar da futbolaren kasuan bakarrik, gure Autonomia Erkidegoan 67.000 kirolari baino gehiago daudela egoera horretan.

Gainera, adituen datuen arabera, aire zabaleko kirolean kutsatzeak oso txikiak dira eta modu seguruan egin daitezken jarduerak dira. Futbola 6.000 m² inguruko jokalekuan egiten dela eta 30 pertsona baino gutxiagok parte hartzen dutela kontuan hartuta, jarduera hori administrazioen baimenarekin garatzen ari diren beste asko baino benetan askoz seguruagoa dela ulertu behar dugu. Hala ulertu dute beste autonomia-erkidego eta Europako beste herrialde batzuetako arduradunek, aire zabaleko kirol-jarduera garatzen jarraitzen baitute.

Areto Futbolari dagokionez, eta esparru estalietan garatzen bada ere, gure ustez, pabiloien neurriak eta bost jokalaria baino ez dituzten taldeen kirola denez, jarduera berriz hasia ere kontuan hartu behar da.

Arestian aipatutako guztiagatik, uste dugu, klubak eta federazioen antolaketa-gaitasuna sobera frogatuta dagoenez, entrenamenduak eta eskola-kirolaren jarduera segurtasun ingurune batean egitea ahalbidetzeko unea dela eta pandemiaren bilakaerak okerrera egiten ez badu, federatutako lehiaketei berriro ekiteko garaia dela. Helburu hori lortzeko, hiru lurralde-federazioen eta horiei atxikitako klub guztien lankidetzak aktiboak dugu.

Jakina da, kirol afizionatua zaintzen duten erakundeak adituen gidalerroen eta agintari eskudunen erabakien mende daudela, eta gure ustez gure lehen helburua gaitz hori desagerrarazten laguntzea da. Horregatik, prest gaude adituek beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak indartu eta protokoloak hobetzeko, kirol-jarduerari ahalik eta bermerik handienarekin berrekitea lortzeko.

Gure ekarpenak aintzat hartu eta eskatutakoa onartzen den bitartean, har ezazu agur bero bat.

FEDERACIÓN ALAVESA DE FÚTBOL
ARABAKO FUTBOL FEDERAKUNDEA



Kepa Arrieta González
Lehendakaria



Bizkaiko Futbol Federakundea
Federacion Vizcaina de Futbol

Jose Ignacio Gómez Mardones
Lehendakaria



GIPUZKOAKO
FUTBOL
FEDERAZIOA
FEDERACIÓN
GUIPUZCOANA
DE FÚTBOL

Manu Díaz de Marcos
Lehendakaria